

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Komunikazio moduen nolakotasuna, beharra eta funtzioak aztertuz, musika zer den definitu eta musika lanak deskribatu eta interpretatu.</p>	<p>1.1. Emandako euskarriak baliatuz musikaren funtzioa ondo azaldu du. 1.2. Emandako musika lan baten deskribapen egokia egin du. 1.3. Musika lan bat interpretatzen du, partituraren azterketa egokia eginez eta teknika egokia erabiliz.</p>
<p>2. Musikak eta soinuak gure inguruan duten erabilera eta eginkizuna ezagutu eta, bitarte digitalak erabiliz, musikak gizakiongan duen eragina aztertu.</p>	<p>2.1. Musikaren ezaugarriak identifikatuz egoera desberdinentzako musika egokia hautatu eta arrazoitu du. 2.2. Musika lanek dituzten ezaugarri eta historiari erreparatuz, gizakiongan duten eragina ondo deskribatu du. 2.3. Bitarteko digitalak erabiliz eta gizakiongan eragin bat sortzeko, musika lan bat eraldatu egiten du.</p>